

# ANAITASUNA

259. zenb.

1973.eko abuztuaren 31koa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5  
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

## Ethnia ttikien hizkuntzak eta Esperantoa

*Esperantotik euskarara Nikolas Apaolazak itzulia. Europako Ethni Ttikien Elkarte Federatuko Gazteen aurtengo Pazko Batzarrean, Munduko Esperantista Gazteen Elkarteak aurkeztu zuen idazlana.*

Ethnia zapalduen alde burukatzen ari direnen artean batik\* bat, berehalaxe kezka sortzen da, Esperanto nazioarteko hizkuntzaren eta European eta munduan beste ohitura hizkuntza ñabar\* ugariak daduzkaten ethnien artean bidetasunezko harremanik egon daitekeen, alegia.\*

Eta berehala galdera hauk\* egiten dituzte. Ez ote da izango Esperanto hori, ethnia ttikien kontra haserrea sortzen duen simbolo bat, frisoia, katalana, bretoia, kymrera eta beste askoren kontrakoa? Ez ote da Esperantoa pixkanaka pixkanaka ahalegintzen, beste hizkuntza guztiak galtzen (bai eta frantsesa, errusoa, ingelesa eta abar), bera nagusi gelditzeko? Esperanto hau ez dea\* jostailu\* berezi bat, mundu honetako izate guztia berdindu nahian dabilena?

Horrelako eritziak ba dira ugari; eta ez litzateke harregarri izango, sarritan,\* ethnien aldeko lanetan ahalegintzen direnen artean horrelako eritzikoak aurkitzea.

Italian piamontesa, alemana, sloveniera, edo eta Frantziar okzitaniara, holandesa edo euskara irakasten ari diren eskoletako irakasleek, berehala ikusten dute esperantistetan kompetentzia, Esperantoaren gainean ikastaldia exigitzen dutenean.

Oraingo nazio mugek dirauten artean, galego burrukalariak, Galiziako lau probintzietan gaztelania ikastea beharrezkoa dela ezagutuko du, nahiz eta berak behin eta berriro esan, gazteek ikastaroak galegoz egin behar dituztela. Modu berean galego horrek berdin onhartzeko du Pontvedran edo A Cruñan ingelesa edo frantsesa irakastea; baina zergatik, Esperantoa dela eta, umeei buruan neke hori sar?

Horra, bada,\* non gauden problemaren erdian sarturik. (Alde batera utziko ditugu Esperantoaren hizkuntza,\* pedagogi eta ekonomi arazoak; hemen kultura eta politikaren arloan ahaleginduko gara bakarrik). Uste dugu, arazo honen gainean oinharri batzuk behar direla, hasiera edo hastapen gisa:\*

1. Nazioarteko eta ethnia desberdinetako hizkuntza sakabanatuek gero eta zerikusit haundiagoa eta hestuagoa dute elkarrekin (turismoa dela, mota askotako jakintza, ekonomia eta abar).
2. Elkar ulertzeko egiten diren propaganda horik,\* esate baterako «Italiara 30 ordutan» e.a., ez dira gai gaurko gizateriaren harremanetarako.
3. Propaganda utopiko bat besterik ez da, gaurko gizateriak ardurarik\* gehieneko (gainera, zeintzuk dira?) hizkuntzak ikas ditzala esatea.



## Ethnia ttikien hizkuntzak...

4. Europan (beronen geographiaren zentzuan) 50 aparteko ethnia bizi dira, bakoitza bere hizkuntza eta kulturarekin.
5. Ethnien arteko harremanetarako ere, demokrazia-  
ren hastapenek\* balio dute: mundu guztiak esku-  
bide berdinak, minoriei babesa eman, maioriaren  
kontra.

Guztiok ondo dakigu, politikari askok, bai eta intelektualen artean ere, gertaerak ezkutatu\* eta aldatu ondoren, beren buruak demokrazia bezala azaltzen dituztela. Ethnia ttikietako burukalariak garbiago ikusten dute zein errespetu gutti eta oztopo haundiak jartzen zaizkien. Horregatik burukatzen dute, horregatik ahalegintzen dira, adibidez, Leeuwarden-go «Frisoi Akademia» eta beste.

Ethnia bakoitzak bere desberdintasunak dituela go-  
goan edukirik, ez dugu uste oker gaudenik, eskabideak  
hauk\* liratekeela esatean:

1. Gurasoen hizkuntzan lehenbiziko klasetik irakastea.
2. Hurrei Unibertsitateraino gurasoen hizkuntzan irakastea.
3. Irrati, telebista, egunkari eta aldizkarietan, heziera,  
ekonomiaz eta teknikaz, ahal den guztia,  
bakoitzari bere hizkuntzan ematea.
4. Zinema eta antzerkiak sail bakoitzari bere hiz-  
kuntzan eskaintzea.
5. Gizarte erakundeetan,\* bertako hizkuntzari legez-  
ko sarrera ematea.
6. Ethnia ttiki horietan erabateko\* kultur aldaketa  
bat gerta dadin, egoki diren diru laguntzak era-  
biltzea.

Ez gehiegi begira, mesedez, esperantistok esaten baldin badizuegu, **hau guztiau lehendik ere eskatzen genuela, ez beragatik, ethnia guztiengatik baizik.** Zeren\* guk, egunero mugaz gain —nor bere nazioan— begiratzeko ohitura dugunok, guztiz ongi baitakigu zein arrisku gogorretan dauden sarturik ethni kulturak, kanpotik trinkatuak.\* Sarritan\* gure filmeak herbesteko hizkuntzetan izaten dira, eta haien mania ulertzeko behar gorri hutsak nekatzen gaitu. Gure jakintsuek maiz\* beren artikulua eta liburuak hizkuntza «haundi» horietan idazten dituzte; eta guk nazioarteko harremanetan erabat\* ergel\* izan behar dugu haien gisara maniatuak izateko, berek esku-  
bide guztiez agin\* diezaguten. Ez dugu guk zuhur eta diplomatikoren izenik lortzen; guk aparte burukatzen dugu.

### HIZKUNTZ ETA KULTUR NAGUSITASUNAREN AURKA

Guk ezagutzen dugu, gudaketa hau gizon guztien artean dadukagun aginte ukatze honetako alderdi bat besterik ez dela, tankera\* askotako nagusitasun honen aurkakoa, alegia.\* Ezaguera honek gero eta esperantista gehiago ernatzen ditu, gazteak batez ere; eta berauek azken sei urteotan problema honetaz asko hitz egin dute, mintegi,\* batzarre eta aldizkarietako artikuluetan, horri soiletan eta beste hainbat bidetan. (Esperantoz hitz egiten duten guztiek ez dute garbi ikusten egoera hau, ale-

gia, ethnien kultur eskubideak sendotuz eta gizateria osoarentzat. Esperantoa bigarren hizkuntzatzat proposatuz, bide berbera daramagula\*).

Eta zer eritzi dugu guk, ba,\* etorkizunaz? Guztiz zentzudun bat, berauxe: Gizateriak helburutzat elkarrekin bakean bizi eta harreman eginkorrak behar ditu. Beren ethniaz etsitu\* ez dutenek, gure ustez, beharrezkoa izango lukete, beren gurasoen hizkuntzan eta Esperanto nazioarteko hizkuntzan —asko edo guti, edo eta bietatik berdin— umeei eskoletan irakastea. Honela, behar aina\* urtetara, gizon guztiak bi hizkuntzen jabe izango dira: bata, ethni hizkuntza, beren arteko harremanetarako ego-  
kia, eta bestea, Esperantoa, nazioarteko ethnien arazoetarako. Orduan ez da izanen nazioen indarraren atxakia-  
rik, ez eta entzute txarreko kultur nagusikeriarik, ethnia bakoitzak bere arazoetan eskubide osoak izango ditue-  
lako.

Orain, hain gaizki egindako agerketa hau bukatzeko, zuen baimena eskatzen dugu, aipamen labur bat idazteko, oso ezaguna den Strasburgoko Unibertsitatean irakasle den Guy Héraud-ek idatzitako artikulua sakonean dioena, hain zuzen ere «Pour une solution du problème ethnique» (Ethni problema erabakitze) izenekoa, «Monda Lingvo Problemo», Mouton, Den Haag, 5. zenbakian, 1970, 103-113. horrialdeetan agertua:

«...ethni hizkuntza bat Europan —ofizial\*- edo sinpleki— sartzekak, kultura bati nagusi gelditzeko bidea zabalduko lioke, horren bidez nazio bat besteen gainean geratuz. Horregatik hizkuntza neutral bat hobestekoa\* da, eta hizkuntza horrek, gainera, ikasteko erraza beharko luke izan. Sarritan kontsideratu da Esperantoa —batere arrazoirik gabe— kosmopolita batzuei lotua balego bezala, eta ez da halakorik; Esperantoa, bere akats guztiakin, ethni doktrinaren zerbitzaririk onenetakoa agertzen zaigu. Ezin daiteke sustrai bila ibil, sustraiok toki guztietan komunak eta jende guztiek erraz ulertzekoak izan ezik; horregatik, Esperantoa gizon guztien elkarren arteko konprenigarri gertatzen\* da, **eta nazio bakoitzaren barrenean gelditzen, askatzaile gisa.**\* Esperantoak kymrera ingelestetik askatu egiten du, euskara frantsesetik, soraviarra alemanetik; eta honela ethnia ttikienak era\* dezake, Esperantoari esker, mundurako bide berri bat, eta bide horretan ez dagoke desleialtasunik ez eta gezurrik ere.

Bada,\* Esperantoak ethni federalismoa lortzeko baldintzak jartzen dituen eran, federalismo honek elkarrenganako baldintzaz dakar Esperantoaren osoko eta betiko garaipena».

daduzkate (dauzkate), <b>daukez</b>	dizuegu, <b>deutsuegu</b>
daude, <b>dagoz</b>	gaude, <b>gagoz</b>
dezake, <b>daiko</b>	lioke, <b>leuskio</b>
diezaguten, <b>deiskuen</b>	zaigu, <b>jaku</b>
ditzala, <b>daizala</b>	

### ANAITASUNA Bizkaia

**Hamabosterokoa.**

**Zuzendari ordeko:** Imanol Berriatua.

**Bulegoa:** Pelota, 4-1.º - Bilbao-5.

**Imprimatzaile:** AMADO, Mazarredo, 35 - Bilbao-10.

**Moldatzaile:** RALI, Particular de Costa, 12-14, 3.º - Bilbao-10.

**XXI. urtea.**

D.L.: BI-1.753 - 1967.

## SEKTORE EKONOMIKOAK

Ekonomiaz ideia pixka bat duen guztia, ados\* egongo da, ekonomia monopolista batetan murgildurik gaudela. Langile soilek populazioaren % 80-a osatzen dutela irakurri ahal izan genuen ANAITASUNAREN ale batetan. Langile hauetarik gehienek konpetentzia oso osoan sinesten dute, hots,\* kapitalak inbersioetan arrisku bat sufritzen duela; eta, horregatik, kapitalari ia irabazi guztien jabetza justifikatzen diote. Baina errealitatea oso desberdina da: estudio bat egin ondoren, argi eta garbi ikusten da, inbertitutako kapitalak ez dulea arriskurik, eta sektore monopolista barruan porrot egiteko posibilitateak ia hutsak direla.

Ekonomi monopolizazioaren intentsitatea erakutsi nahirik, Frantzia 1960.ean kapitalista frantses batek egin dako ekonomiaren zatiketa aztertuko dugu; orduko egoera gure oraingoaren antzekoa baita. Hark dioenez, bost sektore dira:

1. **Dispersio estatikoa** deritzana. Sektore honetan nekazaritza, arrantza, okintza,\* saltokiak, ikuski-zunak,\* jatetxeak e.a. sartzen dira. Konpetentziá\* oso osoa denez gero, sektore honen irabaziak oso txikiak dira.
2. **Dispersio satelizatua.** Lehen sektoreko zati batzuen batasunek osatzen dute bigarren sektore hau: merkatal\* kateek, garajeek, gasolindegiek e.a. Hemen ere konpetentziá handia da; beraz, irabaziak txikiak.
3. **Trantsiziozko sektorea.** Dispersio handiko sektore barnean ematen dena dugu hau. Mota honetako enpresa batzuk, bata bestearekin elkartzuz, merkatuaren jaun eta jabe bihurtzen zaizkigu. Hor dardukagu Bilboko «El Corte Inglés», adibidez. Eman kortasuna galanta da.
4. **Kontzentrazio dinamikoa.** Hau monopolioaren mota bat da. Erealitatean, «oligopolio» bat da (eskaintzaile guti eta erosle asko). Oligopolistek, negozio-afari marduletan gehienbat, prezioak jartzen dituzte, eta, horrela, beren artean banatzen dute merkatua. Beraz, praktikan, benetako monopolio bat besterik ez da. Haren emankortasuna ikaragarria da. Sektore honetan hauk\* sartzen dira: Banka, berebila,\* elektrizitatea, gasa, zementua c. a. Oligopolio hauen pean enpresa laguntzaile txikiak milaka daude, oso emankortasun ttikia dutelarik.
5. **Kontzentrazio estatikoa.** Sektore honetan ikatz industria, trenbideak, bundingintza, untzigintza e.a. sartzen dira. Sektore honek, monopolista izan arren, irabazi handirik ez du, askotan produktuen zahartasunagatik. Estatuak, nazionalizazioaren bidez, parte hartzen du enpresa hauetan. Irabazi handiak lehen irabazi ondoren, gero, produktua errentagarri ez denean, nagusiek Estatuari utziko dizkiote enpresak; emankortasuna jeistean, ez zaizkie interesgarri.

Sektore zatiketa hau ikusita, 3, 4 edo 5, sektorean bere lana saltzen duen langilea oso erraz konturatuko da, sektore monopolizatuak emankorrak direla, eta industria

handien pean dauden lantegi txikiak eta saltokiak ez direla emankorrak.

Frantzia, 1960.ean, populaziotik % 50-ek monopolizatu gabeko lehen eta bigarren sektorean lan egiten zuten.

Betiko zatiketa aztertzen badugu —lehenbiziko sektorea (nekazaritza eta arrantza), bigarrena (industria) eta hirugarrena (zerbitzuak)—, bigarren sektorean lan egiten dutenak ez dira % 50-era heltzen.

Ikusten dugunez, langile gehienak sektore monopolistapean dauden enpresetan aurkitzen dira.


Proletalgoari buruz mintzatzen garenean, normalean monopolio edo oligopolioetan zuzenki lan egiten ez dutenen zati handi horretaz ahanzten gara. Horregatik, euskaldun langilea defendatzen dutela esaten duten guztiek, sektore monopolizatu gabeko enpresetan lan egiten duten langile hoik\* ere beren programan sartu behar lituzketela uste dugu. Hori egiten ez badute, gure eritziz oker handi bat egingen lukete.

ARATZ

daude, **dagoz**  
diote, **deutsoe**  
dizkiote, **deutsoez**


gaude, **gagoz**  
zaizkie, **jakez**

INFORMACION TURISTICA



## GUIA DEL PAIS VASCO

**GUIDE DU PAYS BASQUE  
BASQUE COUNTRY GUIDE-BOOK  
EUSKAL HERRIKO GIDALIBURUA**



**Prezioa: 200 pezeta**

**Eskatzekotan:**

- Euskal Herriko edozein liburutegi
- Distribuidora «San Miguel»  
Alda. Urquijo, 60-6.º, izqda.  
Tel. 23024 - 424498
- Nahiz zuzenki: Tel. 358044 edo 355263

# JAKIN

**Zuzenbidea:** JAKIN, Arantzazu. Oinati. Gipuzkoa.

**Oharra:** Adieraz gurutze batekin ondoko hauetatik nahi dituzun liburuk.

<b>JAKIN sorta</b>	pta.
<input type="checkbox"/> 1. <b>Ipar Euskal Herria</b> (agortua)	
<input type="checkbox"/> 2. <b>Salvatore Mitxelena</b> (agortua)	
<input type="checkbox"/> 3. <b>Rikardo Arregi</b> ... ..	100
<input type="checkbox"/> 4. <b>Kultura eta Fedea</b> ... ..	100
<input type="checkbox"/> 5. <b>Erljioa hauzipean</b> ... ..	100
<input type="checkbox"/> 6. <b>Gure Ikastola</b> ... ..	150
<input type="checkbox"/> 7. <b>Koperatibak</b> ... ..	110
<input type="checkbox"/> 8. <b>Euskal Herriaren atarian</b> (irteteko) ...	130

<b>JAKIN liburu sorta</b>	pta.
<input type="checkbox"/> 1. <b>Euskal Herriaren Historia</b> ... ..	130
F. Zabala	
<input type="checkbox"/> 2. <b>Mintzaira, aurpegia: Gizon!</b> ... ..	120
J. Hiriarte-Urruty	
<input type="checkbox"/> 3. <b>Iraultzaren hildotik</b> ... ..	100
J. Intxausti	
<input type="checkbox"/> 4. <b>Zezenak Errepublikan</b> ... ..	100
J. Hiriarte-Urruty	
<input type="checkbox"/> 5. <b>Kolakowski</b> ... ..	130
J. Arregui, J. Azurmendi	
<input type="checkbox"/> 6. <b>Herriraren lekuko</b> ... ..	150
R. Arregi	
<input type="checkbox"/> 7. <b>Axular. Mendea, gizona, liburua</b> ... ..	120
L. Villasante	
<input type="checkbox"/> 8. <b>Fedearen dinamika</b> ... ..	120
P. Tillich	
<input type="checkbox"/> 9. <b>Kultura proletarioaz</b> ... ..	130
J. Azurmendi	
<input type="checkbox"/> 10. <b>Euskaldunen ipuin harrigarriak</b> ... ..	130
M. Etxeberria	
<input type="checkbox"/> 11. <b>Ekaitza</b> ... ..	120
J. M. Satrustegi	
<input type="checkbox"/> 12. <b>Iraultzaz</b> ... ..	130
J. M. Torrealday	

**Ikus, ikas, ekin JAKIN liburuekin!**

Suskritoreentzat % 30, %40 eta % 50 merkeago!  
 Izena .....  
 Kalea ..... Tel. ....  
 Herria ..... Probintzia .....

- 1.000 pta. aurreratuz ordainduko dut.  
 Liburu bakoitza ordainduko dut, datozen neurrian.

## Ekainak 21 Parisen

**Ordre Nouveau** mugimendu eskuindar eta erreakzionarioak meeting bat egin du «Mutualité» biltokian, Parisen, ekainaren 21ean.

Gaia zuen atzerritik etorri\* langileria, behar diren baimenik gabe ahal nolaka Frantzian sartua. Aitzaki hobegorik ezin zezakeen aurki mugimendu honek, bere ideiak, xedeak\* eta jokaera agertzeko.

1968.eko maiatzean gogor ibili zen asko tokitan, batez ere Parisen eta Tolosan, kontestazio indarrak hautsi nahiz. Baina gaizki ateratu ere bere helburuetan.

Geroztik, bere komandoak emendatu\* eta berritu egin ditu, jende informatu askok diotenez, Estatuaren itzalean. Nola problema korapilotsua dakarkion Estatuari kanpotik etorri\* langileriak, Ordre Nouveau-k uste izan du, bere omena\* goratzeko eta jende xehea biltzeko parada\* ona zukeela, imigrazioa aitzaki, nazio batasuna arriskuan zela salatuz. Populuarri sala, eta populua dei,\* bazterrak ordrean\* ezartzera, behar balitz indarraz baliatuz!

Eskuindarrak salbu, beste alderdi politikoak, batez ere ezkertiarrek, ados\* dira aitortzeko, probokazio bat nahi izan diela Ordre Nouveau-k botatu sozial indar berriei. Meetinga egin zen bezperan hain zuzen, kazeten\* bidez, desafio hau bota zien ezker iraultzaileei: «Mereziduten joa izanen dute beren espantuek.\* 1971.ean bezala, Kirol Palazioan, ezkertiarrek heziak\* izanen dira eta tinkatuak.\* Aholkatzen\* ditugu, hitzen mailan egon daitezen.»

Probokazio honi ihardukitzeko, **La Ligue Communiste** mugimendua da bakarrik sartu burrukan. Bere printzipioei jarraitzeko, ezin zezakeen bestela egin: holako meeting bat uzten bazen egitera, Ordre Nouveau-k dakarren faxismoa, arrazakeria onhartzea zatekeen.\* Denek ba dakite zer gertatu den gero, bi alderdi etsaien artean; batez ere nola poliziak gogor jokatu duen ezkertiarren kontra, bere baitan\* gaur dadukan krisia ezin duela gorde. Gobernamendua gertakari hauetaz baliatu da, bi mugimenduak debekatzeko. Bizkitartean,\* askoren ustekeria\* da, ea Barneko Ministruak ez ote duen berak gertakaria bere xede\* arabera\* akulatu, azpitik baina ongi kalkulatu, La Ligue Communiste ofizialki suntsitzeko.\*

Dena den, kanpotik behatuz,\* errax da ohartzea zein aldetara jotzen duen Frantziako gaurko Gobernamendua: Ordre Nouveau debekatuz, ez du deus\* galtzen; al-diz,\* «anti-casseurs» legea estakuru,\* Komunist Liga suntsituz, ezkertiarrei nahi ukan die ukaldi\* gaitza\* eman. Ez da dudarik, ezkertiar alderdiek bortizki\* senditu dute. Orain, haatik,\* ezkertiar guztiek hobeki dakikete,\* ukaldiak ez direla eskuin alde emanak izanen, eta beren bereizkuntzak gairiditurik,\* hobeki elkar tinkatu\* beharko dutela, beren helburuak lortzeko.

MANEX ERDOZAINCY-ETCHART

die, deutse  
 zezakeen, eikean  
 zukeen, eukean

# Neure lantokitik

## EUSKAL ANALFABETISMOA

Behin baino gehiagotan, ikastolaren bat bisitatzean, harhelean\* irakasleek euskaraz idatzitako hitzak irakurtzeko aukera izan dut; eta sarri askotan ortografiatzeko hutsekin agertzen ziren hitzok. Adibidez: **Asteaskena**.

Joan den igandean, Igorreko\* garagardotegi batetan, kon-tua ordaintzerakoan, txartel bat eman zidaten, eta hitz hauk\* zituen: **Ezkerrik azko**.

Euskaldun karreradun gehienek ez dakite euskaraz ondo idazten, eta euskaraz berba egitean, pobretasun handi bat na-bari\* zaie, bai hiztegiaren eta bai aditzaren aldetik.

Honek konklusio edo ondoren batera eramaten gaitu: eus-kal intelektualgoa deseuskaldunduta dagoela, euskaraz analfa-betua dela; eta hau huts oso larria da. Baina bereziki irakas-leen aldetik. Izan ere, nola irakatsiko dute euskara, berek menperatzen ez badute?

Irakasleak, medikuak, ekonomistak...! Noiz ikasiko duzue euskara, zuen intelektual mailak eskatzen duen neurrian?

## EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Lan bikaina egin zuen elkarte honek euskararen batasuna-ren lehen mementoetan; baina gero moteldurik ibili da.

Xabier Kintanak haren indartzea eskatzen zuen ANAITA-SUNAREN aurreko zenbakian, eta ni ere horren alde nago. Ba dira oraindik, Kintanak aipaturiko arazoak aparte, beste asko konpondu beharrekoak. Adibidez, idazle bakoitzak jakin egin behar luke, besteak zeintzuk liburu idazten ari diren. Behin baino gehiagotan gertatu da, idazle bik itzulpen berbera egitea. CINSAK «Robinson Crusoe» euskaratzeko enkargua eman zion idazle bati; eta lana amaitu eta hilabete batzuk\* geroago ente-ratu ginen, lan hori beste idazle batek egina zuela, eta, argi-tartzeko, editorial baten zain zegoela.

Euskara batua finkatzeko, informazioak trukatzeko eta abar, elkarte hori berriztatu egin behar litzateke.

## ERREALISMOA

Zoritxarrez, gaurko munduak gehiago begiratzen dio erre-alitateari, zuzentasunari baino. Adibidez, Estatu batek beste batekin —honen gobernuaren haren gogokoa izan ez arren— harremanak izaten ditu, bigarren Estatu honek errealitatean boterea eta agintea duelako. Berdin jazotzen\* da gizarteko beste maila guztietan ere. Honek, goian aipatu bezala, zera esan nahi du, errealitateak halio handia duela gaurko munduan.

Hori horrela izanik, ene ustez, euskaldunok ba dugu gaur egun zeregin handi bat: euskalzaletasuna errealitate handi eta zoragarri bihurtzea. Hemen bizi diren guztiak edo gehienak euskalzaleak izatea lortuko bagenu; euskara zabaltzen, geure folklorea nonnahi erabiltzen, euskal kultura maila guztietara eramaten, hitz batez, geure ingurua euskal nortasunaz kutsa-tzen saiatuko bagina, orduan errealitatezko zerbait gure alde legoke, eta hori gure gizarteko gizon ZUHUR guztiek kontuan hartuko lukete, orain mesprezatzen gaituzten taldeek erres-petuz begiratuko ligukete, eta euskaldungoa, errealitate bat izango litzatekeenez, hauek ere onhartuko lukete eta —kome-nientziak bederen\*— hartaz baliatuko.

Ondoren bezala, hau esan nahi dut: ene ustez, gaur hemen egin genitzakeen gauzen artean, lehen mailan dago gure herria euskalduntzea. Honen alde egin litekeen guztia, ez litzateke inola ere alferrik izango. Segur egon zaitezte: ekintza honetan

ez dago denbora alferrik emateko beldurrik. Edozein pauso, aurreranzko urrats\* bat da, dudarik gabe.

Hainbeste teoria abstrakturen artean, eskuin eta ezker mu-turrekoen erasoan\* artean, sasi-unibertsalismoaren gainetik, goazen ekintza konkretu batera: geure herria euskalduntzera.

## DISKO BERRIAK

Columbia etxeak, Bilboko Boni txistulari famatuari «long play» bat egin dio hainbat doinuarekin. Hauen artean, Bizkai-ko Aurreku osoa, Hiru Damatxo, Aita San Migel, Laskurain-ekin Minuetoa, eta abar.

Txistulari berari, CBS etxeak beste «long play» bat egin dio; eta, beste doinu batzuen artean, hauk aipatuko ditugu: «Gure Tala, Agur», «Erando Goikoa» eta «Ana Mari».

## AITA HILARIO OLAZARAN HIL DA

Aita Hilario Olazarán hil da Nafarroan. Mende honen ha-sieran eta Lekarozko ikastetxetik, txistua Nafarroa guztian ze-har zabaltzen saiatu zen Aita Hilario. Zalantzarik\* gabe esan genezake, Nafarroan txistuak eduki duen berpiztea hari zor zaiola. Berak idatzi zuen txistua ikasteko lehen metodoa. Bes-talde, hainbat doinu asmatu zituen, hauen artean «Gora» biri-bilketa famatua.

## TXISTU SARIKETAK

Egun hauetan atera da TXISTULARI aldizkariaren azken zenbakia, eta bertan sariketa batzuk agertzen dira. Hauetariko batek, eta «Kirikiño Saria» izenarekin, euskaraz idatziriko ipuin laburrak, euskal folklorea oinarritsuak, sarizatzen ditu.

Gaur bertan jakin berri dut, Nafarroako Altsasuan sarike-ta handi bat antolatuko dela, txistu jotzaile hobereenak sarizta-tzeko. Taldeentzat, lehen saria 50.000 pezatakoa izango da, eta txistulari soilentzat, 30.000 pezatakoa.

XABIER GEREÑO

dio, **deutso**  
genezake, **geinke**  
genitzake, **geinkez**  
ligukete, **leuskigie**  
zaio, **jako**  
zidaten, **eusten**  
zion, **eutson**

## GALERIA DEL LIBRO

Gotzon Zaballa

Liburudenda  
erregalutarako gauzak  
Euskal liburuak  
Papertaria

EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, núm. 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

# Gure Munduko Albisteak

## Udako euskal ikastaroa Deustuan

Uztailaren\* 2tik 31rarte udako ikastaro bat eratu izan da Deustuan, euskara ikasi edo hobatu nahi zutenentzat. Abuztu honen 7an beste bat hasi da, hilabetearen 31rarte iraunen duena. Demagun,\* ordea, joan den hilabetekoaren zenbait berri.

Ikastaroa lau mailatan banaturik egon da: a) ezer ez zekitenentzat, b) zertxobait zekitenentzat, c) hitz egiteko erraztasuna lortu nahi zutenentzat, eta d) euskal alfabetatzea. Guztitara, 80 ikasle matrikulatu ziren lehen ikastaldiotan, 7 taldetan banaturik. Talde bi (25 lagun) egun osoan aritu dira euskara ikasten (6 ordu egunero), eta beste 5 taldeak (55 lagun) arratsaldean, egunero 4 ordu emanaz. Ikasleen eta irakasleen eritziz, ikastaroaren helburuak lortuak izan dira, hau da, euskaraz mintzatzeko hastea batzuentzat eta erraztasuna eskuratzea besteentzat.

Dakikegunez,\* eratzailleak Deustuko Euskal Kultur Mintegikoak\* eta Euskaltzaindiko Alfabetatze Kanpainako gazteak izan dira, ikastaroan ari izan diren irakasle guztiak, ikasleen garantiarako, Euskaltzaindiko tituludunak izanki.

## Euskal irakasle titulurako examinak Arrasaten

Uztailaren 7an, arratsaldeko 4etan, euskal irakasle titulua atera nahi zutenentzako examinak egon ziren Arrasaten,\* aita Patxi Altuna, Alfontso Irigoien eta Xabier Kintana euskaltzainen ardurapean. Guztitara, 12 lagun presentatu ziren, neskek eta emakumezkoak gehienak; baina examinak amaitzeko orduan, zazpirak aldean, beste ikasle mordo bat agertu zen hara, examinatzeko asmoz, ordua, laurak gabe, zazpirak zela uste ukanik.\* Beranduegi zela eta, hauen azterketa hurrengo batetarako utzi zen.

Arrasatekoarekin lau dira, Euskaltzaindiaren irakasle titulu ofizialak lortzeko egin diren examinak. Aurrekoetan, Bilbon, Donostian eta Eibarren egindakoetan, 100 titulu baino gehiago banatu ziren. Ea Arrasaten ere zorte\* ona ote duten!

## Aita Frantziskotarren kapitulua Arantzazun


Aurten, apirilaren 24etik maiatzaren 2rarte, aita frantziskotarrek Euskal Herriko probintziaren kapitulua ukan dute Arantzazuko Saindutegian; eta Ordenaren barreneko erlijio arazoei bereziki dagozkien gauza askoren artean, euskarari buruz ondoko proposamenduok onhartu ziren ia aho batez.

1. Euskal Herriko Probintziako dokumentu ofizial guztiak gaztelaniaz eta euskaraz idaztea.
2. Bere barreneko elizkizun eta ekintzetan zein hizkuntza aukeratu behar den, komentu kaboitzak erabakitzea.
3. Euskal Herriaren barrenean jaiotakoentzat, euskara ulertu, irakurri, hitz egin eta idatzi ahal izatea hezieraren\* helburu bat-zat hartzea.

4. Kasuotarako, Euskal Herriko Probintzian euskara ere **hizkuntza ofizialtzat** (azpimarkatua gurea da) ematea.

Beraz, euskara ere aita frantziskotarrentzat Euskal Herriko hizkuntza ofiziala da. Pauso ona, benetan, aipatzeko\* ezin utz dezakeguna.

Era berean entzuna dugu, oraino xehetasun gehiegi ez dakigun areen, jesuitek ere antzeko bilera jeneral bat egin dutela oraintsu Euskal Herrian, eta erabaki interresgarri batzuk\* ateratzeko dituztela handixek,\* euskari eta Euskal Herriari dagokionez. Konpainiaren fundatzailea Loiolakoa izanik eta oraingo jenerala Arrupe delarik, ez zen, noski, besterik itxaroteko, halafede\*!



Erljio Ordena eta erakunde\* batzuek Herri hizkuntza eta kulturari buruz hartuz doazen jarrera\* hauek, zertarako uka, poztu egiten gaituzte; baina ez dugu uste, gizonki esateko, horregatik loxintxa\* asko merezi dutenik.

Esplika gaitzen: Euskaldunoi geure hizkuntza eta kultura, berez, pertsonak garen aldetik, onhartu, errespetatu eta lantzer lagundu behar zaizkigun ondasun batzuk dira, eta are\* gehiago Jainkoaren izenean datozenengandik. Zoritxarrez, ez dugu hori orain arte maizegi\* ikusi; aitzitik,\* sarritan, frantziskotar gazteek beren kapituluan adoretzuki salatu dutenez, eliz erakundeak eta kolegioak izan dira tresna deseuskalduntzailerik amorratuena. Kasu askotan agintarien kolaboratzaile zirela esan liteke. Orain gauzak aldatu dira. Herria bere eskubideez konturatu da, eta giroa ez da berdina. Kontzientzi aldaketa hau Ordenen barrenean ere sentitu da, eta gazte kezkatuen poderioa sentierazi da bertan. Ondorioak onak izan dira euskararentzat, dakusagunez.\*

Hala ere, nik neuk bederen,\* halako zerbaiten hutsa nabari\* dut. Ongi dago zor zitzaiguna orain ematea noski, are\* gehiago beste askok oraindik ere ezer eman ez eta geurea ukatzen diguten artean; baina... orainartekoagatik zer? Honetaz, bai erlijio erakundeek eta bai Elizak berak oraindik gure Herriari egindako kalteagatik **mea culpa** publiko bat zor diotelakoan nago.

## Aireportua, Madril, agintariak eta...

Sondikako aireportua, esanak esan arren, aurrera omen\* doa, Madrilen onhartu ondoren. **La Gaceta del**

**Norte-k**, ordea, seinatu egin du bereziki, aireportua Sondikan hain itxuragabeki eta desegokiro egiteko erabakia, Madrilekoek gabe, lehenik Bizkaiko agintariak hartua zutela, eta, Probintziaren protestak gorabehera,\* indarrak asko ukan dutela, Madrilen bertan beren erabaki hori onharterazteko.

**La Gaceta-k**, era berean, gomiatu egiten zituen «holako erabaki bortitzak» hartzeko hainbeste indar duten agintariak, Burtzeñako bidegurutzea, Bizkaiko kaminoak, eskolarik eza, inguruaren kontaminazioa eta hauen gisako\* problemetan ere indar berberaz jokatzera. Ez litzateke, ez, batere txarrik izanen, ez horixe, hola egingen balute.

## Euskal masokhismoa

Herriko jaiak. Pilota partidak, erdal teatro saioak, era askotako txapelketak, filme bereziak, baltzingoak, dantzatoki berriak... dena ondo, jendez eta gazteriaz bete bete eginda: jan, edan, barre, dantza egin, aupa eta gora batzuk\* bota. Halako batean, programak euskal egun bat dakar, eta orduan... **boikota**. Orduraino ez zegoen ez klase arteko burrukarik, ez inolako zapalkuntzarik, ez ezer; baina euskal kutsuko zerbait azaldu bezain agudo,\* zdash! harexen kontra jo behar.

Alde batetik ezagunak genituen, euskal jaiak antolazterakoan, euskal kantariak, bertsolariak, dantzariak eta abar agintarien aldetik ukaten\* zituzten eragozpenak; baina orain, antza\* horiei gutti eritzirik, beste puntakoen aldetik ere hasi zaizkigu etortzen **bainak** eta **baiñak**. Sarritan, gainera, boikot horien eratzailak herrietako apaiz «progre» horietakoak izaten dira. Beldur gara, ordea, sotanaz jantzirik egon ez arren, barrenean Fray Bartolome Santa Teresaren garaiko masokhismo kutsua ez ote zaien erabat\* galdu. Erdal jaiak bai, baina euskal festarik ez. Hau bai dela pentsamodu argia!

## Euskera ala Euskara?

Gure artean aspaldion, (honetan ere batzuek esanen zuketenez) batasuna gabe bitasuna sortu da. Lehen guztiek idazten omen zuten **euskera**, eta orain, Mitxelena jaun gaizto, nahastekari, endredamakila eta sasijakintsuaren exenplu galgarriari jarraikiz, **euskara** hasi gara idazten asko.

Diogun,\* ez dela egia lehen guztiek **euskera** idazten zutenik, iparaldekoek oraintsu arte nork **euskara** eta nork **eskuara** idatzi baitute, eta nafarrek, Kanpionek haien artean, beti **euskara**. Idazle zaharren artean Etxaparek eta Leizarragak **heuskara** zekarten beren liburuetan, eta XVII. mendeko lapurtarrek **euskara**, **eskara** eta **eskuara** (beti a-z). XVIII. mendeko gipuzkoar idazleek bitara zera-bilatan hitz hori: **euskara** eta **euskera**.

Ba dantzut\* baten baten galdera: eta zein da, ba, jatorrena? Duda gabe **euskara**, hortik sortzen baita Euskal Herria, euskaldun eta abar (Euskal Herri, euskeldun eta honelakoak txokokeriak izanki). S. Aranaren ustez, **euskera** hitzaren etymologia **euzko-ele-era** zen; baina horretan oker zegoen, **euzko** delakoaz landa\* ere, azkeneko atzizkia **-era** gabe **-ara** delako, **gogara** eta **erdara**-n bezalaxe. Beraz, egiazko forma jatorra **euskara** dugu.

Dakigunez, Luis de Castresana erdal akademikoari esker, orain urte pare bat Espainiako Hizkuntzaren Erret\* Akademiak **euskera** hitza ontzat hartu zuen «vascuence» esateko; agian horregatik batzuek Kastresana'tar Koldobika idazten dute haren izena, horrekin euskaldunon artean, Kafkak bere Itxura-aldaketa idatzi zuenean behar ukan zuen fantasia ez dela falta erakutsiz. Guztira, eus-

kaldunon artean **euskara** idazten hasi gareneon, Erdal Akademiak **euskera** onesten digu.

Eta Euskaltzaindiak zer? Noiz aldatuko du, jakin gainean oker harturik dagoen izen hori? Noizko **euskara**? Edo eta... noizko Euskeltzaindia? Dagiela\* zerbait, euskal hiztegian **castellano** hitza hartzea besterik ez bada ere, kontxo!

## Aita Joxemiel Barandiaran Axlor-en

Gaztetasuna ez dela urtez bakarrik neurtzen kontuan harturik, Euskal Herriko lagunik gazteena zein den galde-tuko baligute, guk geuk berehalaxe Ataungo Joxemiel Barandiaran erantzunen genuke, beronen moduko lan egiteko adore eta kemena nekez aurki baitaitezke bazterretan.



Lehen Santimamiñen, gero Altxerrin eta Ekainen, eta orain Axlorren, Dimako hauzotegi batetan, Baltzolako koba ederraren ondoan. Bertan bisita bat egiteko parada ukan dugu uztailen. Hura\* toki ikusgarria eta aparta, benetan. Ba dago, egon, herensuageren\* haitzulo haundiaz gainera, agian\* Euskal Herri osoan parerik ez duen zubi natural bat mendi biren artean moldaturik. Harexen ondoan, haitz batek ematen duen aterpetxoan, aztarnategi\* bat dago, aintzinako lagunak **tresnak** eta janari hondakinak franko gordetzen dituen. Hantxe ari da, ba,\* aita Joxemiel gurea, neska mutil gazte batzuk lagun hartuta, bertako lurraren azpian gure Herriaren sustrai zaharrak argitzen. Lan ixila eta ezkutua, baina egin beharrekoa; eta hemen ere... langile gutti.

## ARMENDARITZ

baligute, **baleuskuc**  
balute, **balebe**  
dezakegu, **daikegu**  
digu, **deusku**  
digute, **deuskue**  
diote, **deutsoe**

zaie, **jake**  
zaizkigu, **jakuz**  
zekarten, **ekarren**  
zerabilaten, **erabilen**  
zitzaigun, **jakun**



# MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
Mueller de Uribitarte, 15

B I L B O - 1

# Italiako gobernu krisia

Ekainak\* 12.: Andreotti-ren gobernu, urte bete eskas iraun ondoren, ba doa. Gobernu krisia irekitzen da.

Ekainak 14. Liraren «ostegun\* beltza». Espekulazio izugarri baten menpean, lira komertzialak bere balioaren lau puntu galtzen ditu. Gaur, abuztuak 4, marko batek 250 lira balio du; orain dela lau urte, 150 liran eskura zitekeen marko bat. Ba dago alderik!

Argi dago. Italiak, politika krisia ezezik,\* ekonomi krisi latza darama.\*

Ihazko hauteskundeak,\* centro-sinistrak porrot egin zuelako aurreatu ziren. Krisialdi hartan, sozialisten jokatibidea erabakitzaile izan zen. Ezkertiarren kontra, sozialisten aurka batez ere, sekulakoak jo zituen DC (Democrazia Cristiana) delakoak. Polemika horren asmoa garbi zegoen: DC-ren sozialistekiko onginahiagatik eta politika forma honen azken gaiztoagatik eskuin alderantz joan zitezkeen hautesleak\* erdi aldera biltzea eta bereganatzea. Ongi joan zitzaion DC-ri. Diputatu pare bat gehiago lortu zuen. Haren idazkari\* Frolani-ren garaipen pertsonala izan zen.

Hauteskunde ondoko gobernurako ez zegoen sozialistekin kontatzerik. Eta parlamentuan gehiengoa\* kristau demokratek lortuko bazuten, liberalekin lotu beharra zegoen. Horrela, orain artio iraun duen gobernu erdi-eskuinekoa izan da. Eskuinari darion kiratsagatik edo, bere burua erdikoa deklaratzeko bazuen ere.

Hilabeteak iragan\* dira. Prezioak goraka doaz. IVA-ren aitzakiz esaten zen lehenengotan (IVA, Merkatu Batukoak onhartu duten inpostu sistema da); baina liraren desbalioak, gaitza sakonagoa dela nabarmen erazi du. Sindikatu eta ugazaben\* arteko burruka ere gogorra izan da. Metal mekanikoen, ia sei hilabetetan, lan uzte frango egin dute («scioperi articolati» deitzen zaio, lana erabat\* utzi gabe, produzioa eragozten duen greba\* sistema honi). Azkenean ugazabek amor eman behar izan zuten. Ez, segur aski, lirá derigorrezko gainbeheran zihoala kontu egin gabe, eta sindikatuetikiko kontuak lehen bai lehen garbitzea komeni zitzaizela ikusi zuten arte. Ezaguna da ere, postariak\* hilabete eta gehiagoko greba egin zutela. Erroman eta beste hiri handi batzuetan behintzat.

Bitartean, CD-ren Batzarre Nagusiaren ordua zetorrela eta, Aldo Moro (DC-ren barnean, ezkerreko josten dute netako buruzagi bat) eta Fanfani-k berriro centro-sinistrara jo behar zela erabaki zuten. Erabaki esaten dut, zeren\* Batzarrea egin aurretik elkar hartu baitzuten Moro-k eta Fanfani-k, Rumor, Taviani eta Piccoli-ren taldeak ere ados\* zeudelarik. CD-ko buruzagi gehienak konforme ziren, beraz.

Batzarreak aterako zituèn ondorioak, aurrez jakinak ziren. Fanfani, DC-ren idazkaritzara (horretarako senatuko buruzagitza utzi behar bazuen ere). Rumor, gobernu berriaren buru. Liberalak kanpora bota, eta sozialistekin bat egin.

Lau alderdik osatuko dute gobernu berri hau. DC, PSDI (Partito Socialista Democratico Italiano, Saragat-en inguruan daudenak, PRI (Partito Repubblicano Italiano) eta PSI (Partito Socialista Italiano). PSI-ko batzuek (Mancini-ren taldekoek) ez dute gobernuan sartu nahi; nahia go lukete, kanpotik, parlamentuan eta senatuan bakarrik gehiengo berriaren parte izan. Errepublikanoek Andreotti-ren azken gobernuan egin duten bezala, alegia.\* Hala ere, lauren artean osatuko dute noski gobernu hau.

Formula berri honen problema zaharrak konponduko ote ditu? Prezioak gelditu eraz, produzioa bizkor, inflazioa gutxi: horra hor gobernuaren lehenengo zeregina. Gainera, eskolak, etxegintza, hegoaldeko atzerakuntza: beste hainbeste arazo bizi bizi eta presazko.

Europako beste gobernuetako loturak ere gozatu saiatu beharko du. Merkatu Batuko adiskideak aspaldi honetan kexu dira, Italiako istilu eta gorabeherak direla eta. Haserre horik\* uxatzeko, hitzak baino gehiago den zerbait egin beharko du.

Arrazoirik ba da, oraingo gobernu hau, lehen kale\* egin zuen centro-sinistra baino sendagoa eta eginkorragoa izango dela itxaroteko. Laster ikusi ahal izanen dugu.

MANOLO PAGOLA

daude, **dagoz**

zaio, **jako**

zihoan, **jolan**, joaten zen

zitekeen, **eitekean**

zitezkeen, **eitekezan**

zitzaien, **jaken**

zitzaion, **jakon**



**Emakume, gizonezko eta umeen jantziak**

**Oihal, izare eta etxean behar diren gainerakoak**

**Bai emakume eta bai gizonezkoentzako jantzi aukeratuenak, azken modara eginak**

**HURI ZAHARRA**

**“Casco Viejo”**

**BILBO**



# "Arrats gorri, goiz argi"

Jende arruntak,\* esaera zaharren bat entzutean, era askotako jarrerak\* hartzen ditu. Esaera zaharraren esan-nahia zeharo onhartzten dutenen jarreratik, erabat guties-ten\* dutenenera, kolore guztietako jarrerak daude.

Hala ere, esaera zaharrak, herriaren «zentzu komun» delakoaren fruitu direnez, esperientzia luze batetan oinharriturik daude. Izan ere, hainbat eta hainbat gizaldiren esperientziak hiruzpalau hitzetan batzen dituzte: horixe baino ez baitira esaera zaharrak. Beraz, nahiz eta haietan aipatzen diren gertakarien esangura eta kausa ezagutu ez, kontuan hartzeko dira.

Maiz\* konturatu izan gara, gauez zerua oskorri de-nean, biharamunean eguzki gozo batek iratzartzen gai-tuela. Herriak gertakari hau lau hitzez mamitu du: «Arrats gorri, goiz argi». Oraingo artikulua honetan, esaera honen azalpen zientifikoago bat ematen saiatuko gara.

## EGUZKITIKO ARGIA ZURIA ETA ATMOSPHERA

Bizi garen lur hau izarbela\* izanik, eguzkitik datorki-gun argiak argitzen gaitu. Argi hau zuria dela esaten dugu. Argi zuria kolore guztien nahaste bat da; eta hau garbi ikus daiteke ostarku\* bat sortzen denean, orduan eguzkitiko argia beste koloreetan banazkatzen\* baita.

Argi izpiek, eguzkitik irtenik\* lurrera heltzeko, atmo-spheran barrena pasatu behar dute, eta pasatze horretar-gauza bi gertatzen zaizkie. Batetik, atmosferan dauden molekulek irentsi\* egiten dituzte izpiok, hauek molekulekin topo egitean; eta bestetik, molekula horik,\* berei dagokien baino energia gehiagorekin geratzen dira, eta, orduan, gainez dadukaten energia hori, argi izpi bilakatu-ri\* jaurtikitzen dute.

Hodeirik ez dagoenean, atmosferako molekulek be-reganatzen duten kolorea urdina\* da. Hala ere, berega-natze hau txikia da, eta horregatik ez da kasik igartzen. Atmospherá luzera handi batetan iragaten\* dutenean, eguzkitiko argi izpiek kolore urdina galtzen dute; eta argia, zuri ikusi beharrean, gorrixka ikusten dugu. Hau honela gertatzen da, gorria eta urdina elkarren osagarri direlako, zuria sortzeko.

Hodeiak daudenean, berriz, ez da honela jazotzen,\* kasu honetan ur tantattoak sortzen direlako. Hauek iz-piak irensten dituzte, eta ez diete guregana zuzenki hel-tzen uzten.


## ZERUAREN KOLOREAK

Orain oso erraz uler genitzake zeruak hartzen dituen koloreak.

Egunez, zerua oskarbi denean, argi izpiak zuzenki hel-tzen zaizkigu. Iragaten duten atmosferaren luzerá\* ñi-xikia denez (ikus irudia), urdintasun guti galtzen dute, eta zuri agertzen zaizkigu. Bestalde, molekulek beren dar-daraz\* argi urdina ematen dutenez, urdin ikusten dugu zerua.

Zerua goibel denean, ez zaizkigu argi izpiak heltzen, hodeiek guztiz irensten dituztelako, eta horregatik zuri ikusten dira.

Atmosfera gabeko lekuetan ez dago molekularik, ez izpi irenketarik eta ez molekulen dardaraterik. Be-raz, argi izpiak zuriak dira eta zerua BELTZ. Astronautek, beren begiz gertaera hau egiaztatzeko aukera eduki ukan dute, eta bai guk ere, haiek egin dituzten photographiak ikusirik.



Eta gorri noiz? Lehen esan dugunez, izpiek atmo-spher-a garbia (hodeietarik garbi) luzera handi batetan iraga-ten dutenean. Irudian ikusten den bezala, hau goizean zein arratsean gerta daiteke, argi izpiak askoz ere etza-nago\* datozkigunean.

## ARRATSEKO OSKORRIA ETA BIHARAMUNEN GOIZARGIA

Baina zein da, hauk\* biok duten harremana?

Inoiz (telebistan, adibidez) eguraldi maparen bat iku-si dugunean, beti ikusi dugu, bai zykloiak eta bai an-tizykloiak mendebaldetik\* datozela. Eguraldi ona zein txarra mendebaldetik dator, gu bizi garen lurrean; eta hau, lurraren egunbiraren\* kausaz.

Bestalde, eguzkia mendebaldetik sartzen da. Beraz, arratsean oskorri denean, seinale mendebaldetik zerua garbi dagoela. Eta, biharamunerako gureganantz etorriko den atmosferaldea\* zeru garbi hori denez gero, goi-zean oskarbi ukanen\* dugu.

J. R. ETXEBARRIA

daude, dagoz  
diete, deutsee  
genitzake, geinkez  
zaizkie, jakez

# Gorka Knörri

AISTMBIS

## guten irekia

Agur, jauna!

Zure «Kantagintza eta kritikaz zerbait» artikulua (ikus ZERUKO ARGIA, 538. zenbakia) guztiz harriturik utzi nauzu. Izan ere, hain era arinean erabiltzen dituzu hartan aipaturiko kontzeptuak, non euskal musikaren ikuspegi ximpleena ere itotzera baitator.

Puntuz puntu joan gaitezen:

Jadanik\* aski ezagunak ditugun kantak berriro kantatzeari ongi deritzazu. Eta aurrerago hau diozu hitzez hitz: «Badirudi zenbait jende 'hitz majikoak' entzun nahiez ba doala kantaldietara. Betiko topikoak eta gauza ximpleak entzun nahiz». Nik nuek kontraesan bat somatzen dut horretan. Zeren\* Zuberoako oiha\* eta baso liluragarriak ere nahiko topiko bihurtu baititu norbaitek. Zer esanik ez, «gau iluna», «irteerarik gabeko bidea», kaiolako xoria... eta beste zenbait irudi sasi-poetikoz. «Langileria» bezain hitz majikoa bilakatu zaigu «Aberria».

Bestaldetik, ba da Lertxundirengan halamoduzko jarrrera berri bat. «Maitasun hitzak nahi nituzke esan, baina gaur ezin dut»: holakoak pikotara\* joanak bide\* dira. Lertxundiren ihardunaldietan kanta zaharrek (hala egoez, nola mamiaz) gehientasun bat osatzen dute. Eta hau ezin inork uka. Zenbaiten ustetan, haren «divo» itxuraz, jarraitzaile batzuk sortzen ari dira...

Geroago, «Deustun euskeraz kantatu zuen erdal kantari» diozu Nacho de Feliperi buruz. Beraz, ez da aski\* cuskaraz kantatzea, euskal kantari izateko. (Honetan, beste gauza batzuetan bezala, ados\* nago zurekin). Baina beharrezkoa litzateke, euskal izatearen funtsa\* zertan edo non datzan\* argitzea. Zein da zure kriterio bereizlea? Nondik norakoa da zu eta Nachoren artean da goen aldea?

Hildo\* berean natorkizu oraingo honetan ere. «Euskal herri osoari zuzendutako atakeak» omen\* Nachoren kontsiderazioak. Aitzinago\* jo duzu: erdal kantari ezezik,\* euskaldunon otsai dugu Nacho. «Ez dok amairu» koak, berriz, Euskal Herriaren defendatzaile sutsuak noski...

Haren hitzak Euskal Herri osoaren kontra doaz. Baina Euskal Herria osotasun nahiz zatitasun huts-tzat jotzea abstrakzio bat duzu. Zer zentzutan diozu «Euskal herri osoa»? Geographiari dagokionez? Euskaraz hitz egiten duen oro\* —zuk esana da— ez da euskaldun. Orduan ezin inola ere Herri bat hizkuntza hutsaren arauera\* kalifikatu. Bihotzez eskertuko nizuke, hau guztiau argituko bazenu, ahal duzun neurrian bederen\* (zentsura zorrotz egiten baita).

«Edozertaz idazteko, zerbait jabetua izan behar, idazten den gaiaz». Nork bere burua maisutzat hartzeak ere ez omen\* du ondorio onik. «Ez dut Gobernuren betarik» csatea, astakeria bat duzu (gogora, Donostiako jesuiten ikastetxe batetan, eguerdi eguzkitsu batez...). **Batasu-**

**naren Kutxa**-ren 120. horriari begiraldi bat ematea gomendatzen dizut, edo eta —tripako minik sortuko balitzaizu— Azkueren **Diccionario Vasco-Español-Francés**-en lehen parteko 160.ari.

Ni ere ez nauzu musika arloan hain trebe. Baina publikoa arras asperturik dago zenbait kanta eta kantariz. Musika tresnen eraberritzea ere oso nekez egiten ari da (?).

«Txano Gorritxo» ez dut uste haur ipuin bat denik. Gogoratzen naiz nola, ttipitan irakurtzen nuen bakoitzean, dardarka jartzen ninduen. Geroztik oso beldur nauzu. Horregatik ausartu nauzu gutun\* hau idaztera.

Zure argi eta babesaren zain.

KOLDO IZAGIRRE

dizut, **deutsut**  
nituzke, **neukez**  
nizuke, **neuskizu**  
zaigu, **jaku**

Froga ezazu zuk zeuk

**BYASS 96**

ona dela izenez eta izanez



**GONZALEZ BYASS**

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

## SATITSUA (13)

Enekok bidean sator ttiki bat ikusi dau, grisa eta mutur luzeduna. Osabari daroatso, beronek, bidean, lur gainean, zergatik egoen hilda azaldu deion. Osabak, piztia-ttoa ikusi eta, ba dinotso:

—Ez, Eneko, hori ez da satorra, **satitsua** baino.

—Satitsua? Ni neu, sator ttiki bat zalakoan nengoen, ba.\* Lehengo egunean, sator grisak ere ba zirela esan zeunstan eta.

—Bai, baina begira ondo: honek ez ditu, satorrak dituan aurreko hanka sendo eta hatzapar luzeak. Buztana ere luzeagoa dau; eta ondo begiratzen badeutsozu, begiak erraz aurkituko deutsozuz.



—Egia, ez nintzen horretaz konturatu. Eta non bizi da, ba?

—Satitsua, satorraren eta kirikinoaren\* antzera, intsektujaleen familiakoa da, eta guztiak intsektuetatik bizi dira. Satitsua, daukan taxurako, munduko piztiarik adoretuena ei\* da, bera baino bi eta hiru bider haundiagoak diren animaliak jaten ditu eta. Egunero bi bider jan behar izaten dau bere pisua intsektuen eta animalien haragitan; bestela, hil egiten da ahuleriaz.\*

—Eta guztiak honen ttikiak izaten dira?

—Bai, satitsuak 7 zentimetrotakoak izaten dira, 4 zentimetrotako buztantxo batez. Gehienak lur gainekoak dira, baina uretan bizi dan mota bat ere ba dago. Lurrekoak belar artean ibiltzen dira ehizan,\* eta txi txi zorroztz batzuk\* jaurtikitzen ditue, ezer topatzen dabenean. Habiatoxa ormetan\* egiten dabe, barrura belar siku eta horbelak\* sartuz. Satitsuaren habiak topatzea oso gauza erraza izaten da, zuloaren kanpoko aldean gorotz ttiki beltz luzangaz\* beteta egoten da eta.

—Eta ez ditue beste animaliek hiltzen? Oso ttikia da, ba!

—Bai, hontzek,\* azeriek, erbinudeek,\* basakatuek eta abar hil egiten dabe satitsua; baina gehienetan ez dabe jaten, hilda gero darion musket\* usain gogorragatik. Etxeko katuek ere sarritan harrapatzen ditue, eurekin\* jolas-ean ibiltzeko; baina, beharbada, zerorrek bidean topatu dozunaren antzera, gosea da gehienik hiltzen dituana.

—Eta satitsuak mantsotu egin daitekez, norberarekin eukitzeko? Oso politak dira!

—Bai, mantso mantsoak izaten dira, eta alkondarako poltsikoan sarturik egoten ohitzen dira. Gose eta kaka

larri direnean, handik muturra ateratzen dabe, jaten emateko edo kaka egin daien lurrean ipintzeko. Jaten emateko, ordea, okela zatitxoak, matxinsaltoak,\* harrak eta era guztietako zomorroak eman behar izaten jakez; eta, horregatik, norbera baserrian bizi ezik, ez da erraz gordetzen. Onena, oporraldietan, basoan bizi garenean edo, norberaren ondoan eukitzea da, udazkenean berriz ere basora, bere kontura bizi dadin, botatzeko. Satitsua, bestalde, bizitza laburrekoa da, urtebetegarrenean hil egiten baita berez. Emeak maiatzean 6 edo 8 kumetxo egiten ditu, eta honegatik ugari samar ikusten da bazterretan. Kumetxoak, jaiotzean ilegabeak\* dira; baina laster iletxo grixak hazten jake, amari legez.\* Haunditxoak direnean, sarritan amarekin joaten dira ehizan,\* bata bestearen ondoren elkarren buztanari ahoaz helduz, bidean ez galtzeko.

—Eta zelan\* dau izena erdaraz?

—Españolez **musaraña**, eta frantsesez **musaraigne** (= musareñ). Euskaraz **satitsu** deritzo leku batzuetan, eta beste batzuetan **sateroa**. Gure arteko satitsurik ezagunenaren zientzi izena hauxe da: **Sorex araneus**.

TRAUKO

dabe, **dute**  
daien, **dezaten**  
daitekez, **daitezke**  
daroatso, **eroaten (eramaten)**  
**dio**  
dau, **du**  
deion, **diezaion**  
deutsozu, **diozu**  
deutsozuz, **dizkiozu**  
dinotso, **diotsa**, esaten **dio**  
ditue, **dituzte**  
egoen, **zegoen**  
jake, **zaie**  
jakez, **zaizkie**  
zeunstan, **zenidan**

## BILBOTARREI

Irailaren lehen egunetan, Ipar Euskal Herriko 50 gazte baxenabartarrek egun bat pasatuko dute Bilbon. Egunez gure industria batzuk bisitatuko dituzte, eta iluntzean Bilboko euskal kulturazko elkarteak ezagutuko.

Gau baterako, Bilboko euskaldun familien laguntza eskatzen dugu. Ohe librerik baduzu, dei egizu ANAITASUNARA (tel. 237449) arratsaldeko bostetarik aurrera, zeure izena, bizitokia eta telefonoa emanez, eta esan zenbat gazte nahi dituzun gau horretarako.

Ibilaldi hau «Hirurak Bat» elkarteak muntatu du, Baionako Banco de Bilbao-ren laguntzarekin.

# IRTETEN ARI NAIZ

Bilbon,  
Euskal Herriko hiri nagusian,  
erabat\* gazteleratu den hiri handi honetan,  
kalean zehar gorantz noa.  
Aldamenean jendea ugari,  
ezezagunak noski.  
Begiak eta burua garai daramatzat,\*  
ez harrokeriaz,  
jendearekin topo ez egiteko baizik;  
esku bata poltsan,  
bestea,  
txorien hegoak bezala,  
haizearekin burrukan;  
mila zereginetan,  
mila gauzatan,  
zerean pentsatzen.  
Jende mordoia geldi, argi gorri baten aurrean;  
neronek ere itxaron beharra,  
horlegia\* noiz agertuko zain.  
Une ilabur hau  
aprobetxatzen dut,  
burua makurturik,  
beherantz, lurrera begiratzeko;  
ez aldameneko neskatilari  
bere izter liluragarriak  
kontenplatzeko bakarrik,  
bai eta neure pentsamendua  
pixka bat sakontzeko ere.

Behilegia,\*  
berehalaxe horlegia;  
azkar mugitzen gara guztiok,  
bakoitzak bere zereginak izanen baititu.  
Baina, honela,  
adiskide batekin topo egiten dut.  
Lehen agurra ondoren,  
galderak,  
erantzun iluneko galderak.

**Zer ikasten ari haiz?**

**Medizina?**

Zertarako osagile,  
gure gaitza ez baita sendakizun?

**Hizkuntzak?**

Zertarako, ezin bagara mintzatu?

**Abokatu?**

Zertarako, ezin baitugu inor defendatu?

Euskaldun bako Euskal Herri honetan,  
euskara bako Euskal Herri honetan,  
euskal bako Herri honetan...

Herria,  
nork hil nahi zaitu?  
Neronek!

Baina  
anaia bat bidean erortzen bazaik,  
lepoan har eta segi aurrera.

EROSKI



**Banku batetik espero duzun  
baino askoz gehiago  
eskaintzen dizugu.**

**Hala ere, oraindik gutti  
dela uste dugu.**

Hona hemen, emakumearentzat eskaintzen dugun zenbait zerbitzu. Haietarik batzuk ez dira berriak. Baina denek dute berezitasun bat: emakumea haintzat hartzen dutela.

Hau kontuan harturik, Banku barruan bertan bulego batzuk muntatu ditugu, neskatala espezializatu batzuen ardurapean daudenak.

Eta dena egin dugu, gure gizartean emakumeak lortu duen aurreramenak harrotzen gaituelako. Honela, geure oneritzia eta mirespena erakusten diegu bai etxeko andreei eta bai emakume soilei.

Gaurko emakumeak ba daki zer nahi duen eta bere gurariak nola lor ditzakeen. Zerbitzu hauen bidez geure eskerrona erakutsi nahi diegu, eta geure laguntza eskaini.



Cheques Foto



Cheques de Viaje



Cuentas Corrientes



Domesticación de Recibos



Libretos de Ahorro



Atención a la Mujer



Giros y Transferencias



Opciones de Giro



Banco de la Mujer

**Banco de Bilbao** Banku honek emakumearen eskubideak zaintzen ditu

## HAU DUK UMOREA!

—Hegazti bat mahaira ekartzen didatenean, laster ezagutzen diat nik, gaztea ala zaharra den.

—Non ezagutzen duk, ba?

—Haginetan.

—Hago isilik. Hegaztiak ez diadukaate haginik.

—Hegaztiak ez, baina nik bai, zorrotzak gainera!

— 0 —

—Neskak, gogaiturik nadukazue. Beti entzuten zaitzuet jantzien gainean berba egiten. Beste gauza altuagorik erabili behar duzue zeuen artean.

—Bai, aita! Horixe gaude egiten. Sonbreruen gainean hitz egiten dihardugu.

— 0 —

—Nire mutilak bost urte bakarrik ditu, eta hamar kiloko egurrak altxatzen ditu.

—Ba... nireak askoz gehiago egiten du.

—Benetan?

—Bai, gizon! Bost hilabete bakarrik ditu, eta gaez etxeko guztiok altxatzen gaitu.

— 0 —

Ezkongai bik telephoz:

Neskatilak (haserreturik): Ez haut sekula gehiago ikusiko.

Mutilak: Zergatik?

Neskatilak: Esango diat arratsaldean.

— 13 —



ESENTZIA



AKZIDENTEA

## METAPHYSIKA

OTTON

ZER NAHI DUZU?  
 EDERKI, ZER IZEN AUKERATU DUZU?  
 OSANGI? EZIN IPIN DAITEKE HOLAKORIK, BAINA  
 PERTSONA IZENA EZ DELAKO  
 BAINA ASMATUA DA  
 ORDUAN ARKHAIKOTZAT JO DAITEKE ETA EZIN DA IPINI  
 ORDUAN ITZULPENA DUELAKO EZIN IPIN DIEZAZUKET  
 EZ NAIZ BATERE FIDATZEN, EUSKALTZAINDIKO ZERTIFIKATUA EKARZU ETA IKUSIKO DUGU  
 GIZONA! HORTIK HASI BEHARKO ZENUKEEN, KONTXO. ORAITXE IPINIKO DIZUT. NOLA ESAN DUZU, OSANGI?

EGUN ON. NEURE SEMEAREN INSKRIPZIOA EGITERA NATOR  
 OSANGI  
 ZERGATIK EZ BA?  
 BA DA. NIK BEHINTZAT BAT BAINO GEHIAGO DAZAGUT IZEN HORREKIN  
 EZ, EZ DA, AINTZINAKOA DA ETA  
 EZ DA ARKHAIKOA, ORAIN ERE USADIOAN DAGO  
 EZ DU ITZULPENIK, ORDEA  
 BAINA OSANGI EZ DA EUSKAL IZEN BAT, JAPONESA BAIZIK

Bai, OSANGI



Patxi



Hara, lan egin nahi ez izateak eta beti kantzatzen aritzeak ez zidanate amorrurik ematen, baina ondotik ikusten gaituen bakoitzean "burjesak" deitu behar horrek...


Hoc est hoc



Patxi



GURUTZEGRAMA (24)





**Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Euskal idazle baten izena.—2. Inorenganako ordaindu beharra.—3. Zakua.—4. Kontsonantea. Espainiako herrialde baten izena. Bokala. 5. Sasoia, aldia, garaia (alderantziz). Bokala. Jarri, ipini (sustrai-inifinitiboan).—6. Zurezko tantaia, sostengua (alderantziz eta arkuluarekin). Animalia batzuen hatzaparra (artikuluarekin).—7. Kontsonantea. Benetan. Kontsonantea.—8. Zabaldu.—9. Buruan dugu.—10. Azkeneko.

**Goitik behera:** 1. Joan zaitez.—2. Nota musikala. Kontsonantea.—3. Barik. Bokala.—4. Kontsonantea. Ardo gordetzeko. Kontsonantea.—5. Euskal Herriko xoria (alderantziz). Herria (artikuluarekin).—6. Entzun ezin duena bihurtu. Hitza (alderantziz eta artikuluarekin).—7. Suak egiten du. Bihotz aldera dagoen oskua.—8. Kontsonantea. Poesia. Bokala.—9. Beheko aldea. Kontsonantea.—10. Bizkaiko herrixka (alderantziz). Bokala.—11. Izenorde pertsonala (datiboan eta alderantziz).

**Goitik behera:** 1. Zoaz.—2. Re. B.—3. Gabe. U.—4. M. Olerki. A.—5. Zozo. Hiria.—6. Gortu. Elea («eleak ede-rrak ditu, ez ordea gintzak»).—7. Erre. Ezker.—8. L. Zahagi. K.—9. Azpi. K.—10. Ea. O.—11. Hari. Bukarako.

**AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Mogel.—2. Zor.—3. Zorro.—4. Z. Gaztela. I.—5. Haro. U. Ezar.—6. Haba. Erpea.—7. Z. Egiazki. H.—8. Ireki.—9. Ile.—10.

HIEROGLYPHYKOA



Zer du aitak?

EUSKAL SALDA

S	U	M	E	G	O	R	R	I	M
U	S	U	G	E	A	K	O	G	U
G	A	S	A	T	N	O	W	E	A
A	S	K	R	O	U	T	B	I	N
N	E	E	G	U	A	X	O	G	T
G	K	R	O	K	R	T	Z	E	I
I	O	R	K	A	I	M	A	N	A
L	G	A	R	P	Z	L	U	G	A
A	O	L	I	D	O	K	O	R	K
I	G	E	R	I	E	G	I	N	O

Goiko koadro horetan zazpi narrastiren izenak daude, zuzenean jarita. Aurkituko dituzu? Kontuan hartu behar duzu oskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, goitik behera, behetik gora edo eta zeharretara, diagonalen ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Barregura handia

EUSKAL SILDAREN ERANTZUNA:

ziruna.

Sugangila, suga, muskerra, boa, krokodiloa, kaimana,

# HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

## Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABOTS, voz.  
ADORE, kemen.  
ADOS, **conforme, de acuerdo.**  
AFERA, hauzi, **caso, asunto, affaire.**  
AGIAN, beharbada, nonbait.  
AGIN, mana, **mandar, ordenar.** (AGINDU, manatu, **mandado, ordenado.**)  
AGUDO, laster.  
AHANTZI, ahanztu, ahaztu.  
AHOLKATZE, **aconsejar.**  
AHULERIA, makaltasun.  
AINA, adina, beste, bezainbat. (Hitz honek ez daduka H-rik).  
AIPATU, alpatutako, alpaturikako, alpaturiko.  
AIPATZEKE, aipatu gabe.  
AITZINAGO, aurrerago.  
AITZINDARI, **precursor.**  
AITZITIK, **al contrario.**  
ALDIZ, berriz, ordea, ostera.  
ALEGIA, a **saber, es decir, esto es.**  
ANTZA, dirudienez.  
ARABERA, arauera, **según, conforme.**  
ARAUERA, arabera, **según, conforme.**  
ARDURA, axola.  
ARE, oraindik, **aún, encore.**  
ARRAS, gutziz, zeharo.  
ARRASATE, Mondrago.  
ARRUNT, **común, corriente, ordinario.**  
ASKI, nahiko.  
ATMOSFERALDE, **zona de atmósfera.**  
ATXIKIMENDU, **adhesión.**  
AURRERITZI, **prejuicio.**  
AZTARNATEGI, **yacimiento arqueológico.**  
AZTARREN, aztarna, **vestigio.**

BA, bada, **pues.**  
BADA, ba, **pues.**  
BAHITU, **secuestrado.**  
BAITAN, -gan.  
BANAZKATZE, banatze.  
BARREIATZE, **esparcir, difundir.**  
behin.  
BATIK BAT, batez ere, bereziki, gutziz ere.  
BATZUK, zenbait. (Batzuek aktibo, batzuk pasibo).  
BEDEREN, gutienez, behintzat, behinik  
BEHATU, begiratu.  
BEHILEGI, **amarillo muy vivo (color vaca), jaune très vif (couleur vache).**  
BEREBIL, **automóvil.**  
BEREZTE, bereizte, **distinguir.**  
BIDE, agian, beharbada, nonbait.  
BILAKATU, bihurtu.  
BILDUMA, **colección.**  
BIZKITARTEAN, bienbitartean.  
BOLARA, bolada, unada, **época, período.**  
BORTITZ, sendo.  
BORTIZKI, **fuertemente.**

DAGIELA, egin dezala (dalala).  
DAKIKEGU, dakigu nonbait.  
DAKIKETE, **dakite nonbait.**  
DAKUSAGU, ikusten dugu.  
DANTZUT, entzuten dut.  
DARAMA, daroa, eramaten (eroaten) du.  
DARAMAGU, daroagu, eramaten (eroaten) dugu.  
DARAMATZAT, daroadaz, eramaten (eroaten) ditut.  
DARDARA, **vibración.**  
DATZA, **yace, está, consiste.** (Etzan aditzaren forma).  
DEA, da + a. (Azken bokal hau galdeetan eranstean zaio aditzari).  
DEI, **llamar. (DEITU, llamado).** Iparraldekoek akusatiborekin erabiltzen dute aditz hau. Beharbada, holaxe izan behar luke cuskara batuan. (Ez nazazula dei neure egunen erdian. **Axular,** 127).  
DEMAGUN, eman dezagun (daigun).  
DENBORA, denborea, **el tiempo.**  
DEUS, ezer.  
DIOGUN, dinogun, esan dezagun (daigun).

EGOTZI, bota, jaurtiki.  
EGUNBIRA, **rotación diaria.**

EHIZA, caza, **chasse.**  
EI, omen.  
EKAIN, junio.  
EMENDATU, gehitu.  
ENGAIAMENDU, **compromiso, engagementt.**  
ERA, **proporcionar. (ERATU, proporcionar).**  
ERABAT, gutziz, zeharo.  
ERABATEKO, gutzizko, **completo, total.**  
ERAKUNDE, **institución, organismo.**  
ERASO, **ataque.**  
ERBINUDE, **comadreja, belette.**  
ERGEL, bobo, tonto, **imbécil.**  
EROAN, eramán.  
ERORTZE, jauste.  
ERRET, **regio, real.** (Berba honek, hurrengoarekin hitz elkartu bat egiten duenean, galdu egiten du azken bokala, eta G kontsonantea T bihurtzen da. Hala idazten du Armendaritzek, klasikoei jarraituz. Kasu honen antzekoak ba ditugu beste asko ere: Artizar = argi + izar, betilun = begi + ilun, satitsu = sagu itsu, abeletxe = abero + etxe, eta abar).  
ESPANTU, **valentía, jactancia.**  
ESTAKURU, aitzaki, atxakia.  
ETORRI, etorritako, etoririkako, etorri-riko.  
ETSITU, **desesperado, desistido.** (Baina gero, biziak etsitu duzenean, egin gogo dituzu liberaltasun handiak. Axular, 157).  
ETZAN, **horizontal.**  
EUREKIN, haiekin.  
EZEN, ze, **pues.**  
EZEZIK, **no solamente.**  
EZKUTATU, **ocultado.**  
EZKUTU, **oculto.**

FROGATU, **probado, demostrado.**  
FUNTS, **esencia, sustancia.**

GAINDITU, **superado.**  
GAITZ, **eskerria, enorme, atroz.**  
GARAMATZA, garoaz, eramaten (eroaten) gaitu.  
GEHIENGO, **mayoría.**  
GERTATZE, **resultar.**  
GISA, modu: bezala.  
GORABEHERA, a **pesar, malgré.**  
GREBA, **huelga.**  
GUTIESTE, **menospreciar, subestimar.**  
GUTUN, **eskutitz.**

HAATIK, hala ere.  
HAIK, hareek. Haiek (haiek) aktibo, haik (hek) pasibo. (Ikus Lafitteren «Grammaire Basque», 82. horrialdea).  
HALABER, **así mismo, igualmente, por ejemplo.**  
HALAFEDE, a fe mial  
HANDIXEK, **handik + xe.**  
HARBEL, **pizarra.**  
HASTAPEN, **principio.**  
HAUK, **honeek. (Hauek aktibo, hauk pasibo).**  
HAUTESKUNDE, **bozketak, elección, votación.**  
HAUTESLE, **votante, elector.**  
HERENSUGE, **dragón.**  
HEZI, **domado.**  
HEZIERA, **hezkuntza, educación.**  
HILDO, **surco, sillón.**  
HIZKUNTZ, **lingüístico.** (Hitz honek eta hurrengoak biek, kasu honetan, galdu egiten dute A organikoa, arazo berbarekin hitz elkartu bat egiten dutelako).  
HOBESTE, **preferir.**  
HOIK, horik, horroek. (Horiek aktibo, hoik pasibo).  
HONTZ, **lechuga, chouette.**  
HORBEL, **hoja seca, feuille sèche.**  
HORI, hoik, horroek. (Horiek aktibo, horik pasibo).  
HORLEGI, **verde (color hoja), vert (couleur feuille).**  
HOTS, a **saber, es decir, esto es.**  
HURA, ha.

IDAZKARI, **secretari.**  
IGORRE, **Yurre.**  
IKUSKIZUN, **espectáculo.**  
ILEGABE, **ulebako.**  
INPERIALIST, **imperialista.** (Hitz honek, kasu honetan, galdu egiten du bere A organikoa, hurrengo berbarekin hitz elkartu bat egiten duelako. Hala idazten du zenbait idazkiek).  
IRAGAN, **igaro, pasatu.**  
IRAGATE, **igartze, pasatze. Han barrena sartu dire, / gaur iragateko; / ezen\* bertze ostaturik / ez zuten gelditzeko (Joanes Etxeberri Ziburukoa, Noelak, 50). Berdin: igate, jasate, ukate, eta abar.**  
IRENTSI, **absorbido.**  
IRITXI, **heldu.**  
IRTEN, **urten, atera, jalgi.**  
IRTETE (ez irtetze), **ateratze, jalgitze.**  
ISTORIO, **hecho narrado, ingelesez story. (HISTORIA, kondaira, Ingelesez history).**  
IZARBEL, **planeta.**

JADANIK, **ya.**  
JARRERA, **actitud, postura, posición.**  
JAZOTZE, **gertatze.**  
JOSTAILU, **jostagailu, juguete, jouet.**

KALE EGIN, **fracasar, fallar.** (Kasu honetan, kale hitzaren azentua lehen silaban doa).  
KASA, **pentzu, cuenta.** (Bero kasu = por su cuenta).  
KAUSITZE, **aurkitze.**  
KAZETA, **periférico, journal.**  
KAZETARI, **periodista, journaliste.**  
KIRIKINO, **erizo, hérisson.**  
KISA, **glsara, pentzura.**  
KONPETENTZIA, **la competencia.** (Azentuak, hitza mugatua dela adierazten du).

LANDA, **kanpo, lekora, at, fuera.**  
LEGEZ, **lez, bezala.**  
LEKUKO, **testigu.**  
LOXINTXA, **lausengu, Ilsonja, flatterio.**  
LUZANGA, **luzetto.**  
LUZERA, **luzeroa, la longitud.** (Hitz hau mugatua dela adierazten du azentuak).

MAIZ, sarri.  
MATXINSALTO, **saltamontes, sauterelle.**  
MENDEBALDE, **mondebal alde, occidente, Oeste.**  
MERKATAL, **comercial, mercantil.**  
MINTEGI, **seminario.**  
MUSKET, **musketak, almizcla, musc.** (Ikus INPERIALIST).

NABARI, **evidente, notorio, perceptible.**  
NABARITZE, **percibir, patentizar.**  
NEHOR, **inor.**  
NON, **que.**  
ÑABAR, **variado, diferenciado, matizado.**

OFICIAL-, **ofizialki.**  
OIHAN, **baso.**  
OKINTZA, **ogi + gintza.**  
OMEN, **ei; prestigio, reputación.**  
ORDRE, **orden.**  
ORMA, **paret. (HORMA, hielo, glace).**  
ORO, **guzti.**  
OSTARKU, **arco iris, arc-en-ciel.**  
OSTEGUN, **eguen.**  
OSTEKO, **ondoko, ondorengo.**

PARADA, **abagadune, aukera, era, ereti, ocasión.**  
PIKOTA, **picota (antiguo instrumento de suplicio). Joan pikotara = irse a la nada, irse al traste.**  
POSTARI, **cartero, facteur.**

SARRITAN, **maiz.**  
SOLIPSISMO, **solus ipse), norbera bakarrik.**  
SUNTSITZE, **hondatze.**

TANKERA, **taxu, estilo.**  
TINKATU, **frenado, aplastado, apretado, compactamente unido.**  
TRINKATU, **oprimido.**

UGAZABA, **amo, dueño, maître.**  
UKALDI, **golpe.**  
UKAN, **izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).**  
URDIN, **azul.**  
URRATS, **pausa.**  
USTEKERIA, **sospecha, creencia vaga.**  
UZTAIL, **julio.**

XEDE, **asno.**

ZAPUTZ EGIN, **desamparar, abandonar.**  
ZALANTZA, **vacilación.**  
ZATEKEEN, **izango zen.**  
ZELAN, **zeia, noia.**  
ZEN, **que se había. (Zuzentzaileak jarritako azentu honek, aditzaren erlatibotasuna adierazten du).**  
ZEREN (ETA), **ze, pues.**  
ZINEZ, **benetan.**  
ZORTE, **fortuna, suerte.**



DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

**SOINU KOADROFONIKOA**

**AMALUR** RESTAURANTA

KAFETEGI

# F. Bondy: "Gainerakoa, idaztea da"

François Bondy kritikoak berrogei urte luze eta haunditako esperientzia du kritiko literario bezala. Pariseko bere torre literariotik, Frantziako eta mundu guztiko mugimendu literarioak segitzen zituen. Begi zorrotzez. Eta ezagumenduz. «Gainerakoa, idaztea da» liburuak, urtez urte idazle sozial-politikoaren inguruan idatzitako artikulua bilduma\* bat dakarkigu.

Idazle konprometatuaren gaia, moda luze bat izan da. Orain ba dirudi, denborá\* nekatu dela moda astun horrekin, eta gainbehera doala. François Bondy kritikoak, «littérature engagée» dogma zeneko bolara\* erakusten digu. Eta nola *impasse* batetan, irtenbiderik gabeko kalean, bukatu duen. Ederki erakusten dizkigu, azkeneko urteotako idazlerik ospetsuenek orabili dituzten burutapide eta eginkizun politikoak. Eta nolako nahasmendutan ibili behar izan duten, ez zirena izan nahiz: politikoak.

Politikotara sartzen den idazlea, mila kontradizio eta bihurgunetako laberintuan kausitzen\* zen. Brecht-ek bitxiki adierazten zuen moduan, «zer lanetan ari zara?» galdeturik, orantzuten du Keuner jaunak: «Hurrengo ekibokazioa prestatzen ari naiz». Situazio horretan kausitzen baita idazle konprometatua. Alde batetik duda eta kritika, bestetik helburu garbiak eta ekintza predikatu beharrik. Hararik ere, ez dago biak bateratzerik; eta «littérature engagée» guztiak kontzientzia ordibitu bat agiri du. Kritiko eta eszeptikoa da batetik, sinestun eta dogmakoi bestetik (aktibista den neurrian). Eragin eta irakatsi egin nahi duen neurrian, jakitun moduan agiri da; baina, egunetik egunera nahasiagoa bihurtzen den ideologiaren nahasmahasian eta kaos informatiboan, ezjakin hutsa da. Horregatik, eguneroko gorabehera politikoetan sartzen delarik, apelazio moraletan errefujiatzen da berehalaxe, gehiago ezinik. Idazle konprometatuek prediku sutsuak egin dituzte: baina azterketa politiko franko sinplistikak ere bai, gehienetan.

Hitzaurrean Herbert Lüthy-ren hitzok irakurtzen dira: «Munduen kontzientzia bezala konstituitu zèn\* intelektuala, hain problematiko bihurtu zitzaion bere buruari, non\* azkenerako beste problema denetan berarekiko zerikusiak bakarrik ikusten baitzituen. 'Littérature engagée' delakoaren gai bakarra bere burua bihurtu zen; eta engaiamenduak,\* atxikimenduak,\* solipsismotan\* bukatu zuen. Batez ere Jean-Paul Sartrek, bere polemika eta drametan ere, ez zedukan funtsean\* bere buruaz beste solaskiderik. Eta honen atzetik, intelektualari buruz intelektualek intelektualentzat idatzitako literatura ugaria sortu da».

Nork ez du ikusten, izan ere, literatura konprometatuaren horrikerik konprometatuena, kartsuenak, eta ederronak ere bai, literaturak konprometatua izan behar duela esateko idatziak direla? Literatura konprometatuak la bere buruaz bakarrik dihardu. Ez da, ba,\* gehiegi harritzekoa, makina bat entseiu egin izan ondoren, literatura konprometatuari buruz azkenean eszeptismoa eta, dagoeneko, nekea eta aspertua sortu badira. François Bondy kritiko xeheak horrelako entseiu mordoska bat azaltzen digu: Gide, Mauriac, Sartre, Camus, Senghor, Fanon, Maller, Foucault, Walser, Bertrand Russell, Orwell, Gombrowicz.

Literatura konprometatuaren krisialdia, inon baino nabarmenago, Sartrek azkeneko bolaran hartu dituen jokabideetan nabari da: ba dirudi, Sartrek aktibismo hutsetara pasa nahi duela (nahiz eta, beharbada, pauso literario batekin egin nahi hori!). Bere liburu guztiak baino inportanteago dela, Renault-en greba\* bat antolatzea, deklaratzeko du behintzat. Lastimagarria zera da: Sartrek esanda gauza inportantea dirudien hori, beste odozeinek esanda astakeria hutsa izango litzatekeela. Nolako den justizia...

Aspaldiko arrazola du hori Sartrek, «Nouveau Roman» zenaren kontra egotzia,\* alegia\*: ez zuela Hirugarren Munduko gosea erremediatzeko balio. Sartre ondoko literatura konprometatuak (eta Bi-

garren Mundu Gerra osteko\* literatura konprometatua ez du inork Sartrek aina\* markatu eta moldatu) ilusio horixe zuen agian.\* Bistan dago, hori berak ere «Nouveau Roman»ek bezain guti lortu duela.

François Bondyren lumak ongi erakusten duenez, literatura konprometatuaren saiok, adoz\* beterik hasi ondoren, ia beti noragabean eta bere buruaz teorizatzen galtzen dira. Udaberri oso labur baten ondoren, laster zimeltzen diren saiok.

Batetik, Sartre bezalakoak daude: literaturari zaputz\* egin eta konpromisoarekin bakarrik gelditzen direnak. Flaubert-en gisakoak, bestetik: politika arazoetatik erretiratu eta literatura egiten dutenak. Pirandelloren aitortza batetan ere ikus daitekeenez: «Nire uste politikoen aztarren\* izpirik ere ez duzu somatuko nire izkribuetan. Bere kritzi politikorik edukitzeko edo Alderdi politikoren batetan egoteko eskubide osoa du idazleak, nik uste; baina ez, eritziok bere idazlanetan adieraztekoa».

Ohargarria, halaber,\* Camusekin gertatzen dena ere: konprometatua zen, noski; baina periodista bezala edierazi zuen bere engaiamendu\* politikoa. Literatura eta periodismoa bereziten\* zituen bere lanean. Literatura egiterakoan ere «konprometatua» zenean, arrazonomendu politiko-humanistak egiten hasten denean, orduantxe gertatzen da literarioki eskasena, **La Peste**-ko zenbait zatitan adibidez.

Zer? Idazleak ez duela eskurik politikan sartu behar, erabaki beharko ote da? François Bondyk ez luke horrelakorik esango. Bai, ordea, konpromisoaren problemari jadanik\* beste planteamenduren bat bilatu beharra dagoela. Orain artean planteatu izan den bezala, izan ere, ez da inora ailegatzen.

Planteamendu berri honek ez litzake idazlearen eginkizun edo funtzio literarioak eta politikoak nahasi behar. Eta bai garbi berezi. Literato haundi askok kritzi politiko guztiz eskasak izan dituzte, gaiztoak ez zirenean ere. Orduan literatoa ere arriskuan gelditzen da. Eritzi politikoak, holakoxe bezala — kritzi politiko moduan — neurtu behar dira, eta «gainerakoa, idaztea da».

Hori osatuz, beste sujerentzia jakingarri hau egiten du Bondyk: idazleek, lehenik, ideologiak alde batetara utzi behar litzukete, beren kisa\* aritzeko, eta, gero, «historia inofizialaren kronista» izan behar lukete, hots,\* arrain mutuen abotsa.\* Hau da, mende honetako literaturaren gaia Nitasun oinazetua da. Jende sufritua, «jende tipia». Nolanahiko enpresarioen mundu honetan enpresarioetakoak ez; baina «enpresatuetoakoak» diren jendeen boza, beraz. Brechtekin esateko.

Literatura konprometatuaren hauzia, gaurko bere gaitzalditik iriteteko,\* Bondyk sujeritzen dituen bideetatik desarroilatzen bada, atzera XIX. mendeko errealismo aldera joko dela dirudi. Ideologia crantz, lehen lehenik literatura egin, eta «jende tipiaren» abotsa izan. Literatoak aurkeztu egin behar du, presentatu eta adierazi. Ispilu errealista izan behar du. Ez aitzindari odo buruzagi, ez «caudillo» bihurtu.

Beharbada, Hego Amerikako nobelak zenbait premiako zuzenketak okarriko dio literatura konprometatuaren hauziari. Nobela haik\* zinez\* konprometatuak dira; baina ez dira, Europako —eta Euskal Herriko— zenbait literatura bezala, idazleak bere kritziak parra-parra barreiatzeko\* tribuna huts. Izan ere, hemengo zenbait obra literariotan gaiak ez du bizitza propiorik batera. Autorearen monologoak dirudite, edo maisu baten lezioak, pixka bat diximulatuta.

M. L.

daude, **dagoz**  
digu, **deusku**  
dio, **deutso**

dizkigu, **deuskuz**  
zedukan (zeukan), **eukan**  
zitzaion, **jakon**